



3. saioa herritarrekin: akta

Eguna: 2014/04/05

Ordua: 10:15-14:15 Bertaratutakoak:

3. saioko asistentzia laburbilduz:

- Guztira **37 lagun**
- 27 gizonetzko eta 10 emakumezko
- **2 berri** (lehenengo edo bigarren saioetan parte hartu ez zutenak)

25 lagunek parte hartu dute saio guztietan.

SARRERA

Ohi bezala, prozesuaren helburua eta saioetako egitekoa azaldu dugu. Ondoren, prozesuan kontuan izan beharreko balioak erreparatu ditugu.

Gero, girotzeko, ilaran jarri gara, izenaren arabera ordena alfabetikoan jarrita, eta geure burua aurkeztu dugu.



Azkenik, bigarren saioan identifikatu genituen adostasunak erreparatu ditugu. Aktan eta bileran bertan batzuk identifikatu genituen, eta bideratzaileok beste batzuk ere ikusi ditugunez, guztiak berretsi ditugu:



3. saioa herritarrekin: akta



2. saioko adostasunak



Estalpea

Leku estali bat behar da, eguraldi txarra egiten duenerako, txikia bada ere, batez ere guraso eta haurrentzat, eta harreman sozialetarako.

2. saioko adostasunak



Proisa edo Proisa bezalakoa (1)

Beste leku bat:

- ✓ Libre sortzeko
- ✓ Elkarren onetako hamenak sortzeko eta sendotzeko
- ✓ Jendea elkarlanean jartzeko
- ✓ Zinema egiteko
- ✓ Erakusketak egiteko
- ✓ Haurrentzat aisialdi-ekintzak egiteko
- ✓ Elkarteek bilera/batzarrik egiteko
- ✓ Kontzertuak egiteko
- ✓ Afariak egiteko
- ✓ Panpinak/karrozak egiteko
- ✓ ...

2. saioko adostasunak



Proisa edo Proisa bezalakoa (2)

Leku horren ezaugarriak edo edukiak:

- ✓ Kokapena: gaur egungo Proisa, frontoi ondoan, herri erdian
- ✓ Leku autogestionatua
- ✓ Balioanitzia
- ✓ Leku estalia, irekia, diafanoa, handia, malgua
- ✓ Eszenatoki handi batekin
- ✓ Taberna edo barrarekin
- ✓ Biltegi edo kontsigna gauzak gordetzeko
- ✓ Apartamentu txiki bat (lotarako)

2. saioko adostasunak



Lokal txikiagoak

Beharrezkoak dira. Izan daitezke Proisaren edo Proisa bezalakoaren goiko solairuan, Ertin, Gimnasioan, alkateordetzan...

Ezaugarriak:

- Leku konpartituak
- Leku arautuak
- Ofizinak
- Bilera-gelak
- Arte plastikoetarako tailerrak
- Leku bat intsonorizatua (musika)
- Leku bat antzerkirako (udal-aretoak balio dezake edo Proisak)
- Dokumentazioa gordetzeko leku bat behar da (ondare historikoa)
- ...

2. saioko adostasunak



Udalaren beste lokalak (Erti, Gimnasioa, alkateordetza...)

- ✓ Beharrezkoa da espazioen koordinazioa
- ✓ Erabilera erraztu egin behar da, ez jokatu hain zorrotz
- ✓ Tramitazioa arindu
- ✓ Lokal bakoitzari erabilera egokia eman
- ✓ Erabiltzeko aukera berbera eman guztiei (monopoliorik ez)
- ✓ Lokal batzuen saturazioa ekidin



3. saioa herritarrekin: akta

2. saioa adostasunak



Udalaren laguntza

Udalak lagundu kultur edo gizarte-taldean eta -elkartean biziraupenean eta ahal bada indartu:

- ✓ Diru-laguntzak guztientzat edo erraztasunak eman (espazioak utzi emanaldien truke)
- ✓ Erraztasunak eman
- ✓ Gestioan lagundu
- ✓ Aholkularitza eman (zergak, tramiteak...)
- ✓ ...

Ondoren, hauek komentatu dira:

- Aurreko bileran hitz egin zen Proisako **2. solairua arte plastikoetara** bideratuko zela. Nolanahi ere, beste iritzi batek aipatu du, arte plastikoen alorrean bezala, gainerako diziplinen beharrak aztertu eta zehaztu beharko direla. Lokal txikiez hitz egin da, baina kontuz ibili behar da, ezin dutelako txikiegiak izan. Eta espazioak irekia izan behar du, ez gela txiki eta itxiak. Era berean, aipatu da arte plastikoetarako bestelako gunerik balego, hitz egiteko irekita daudela. Apartamentuaren ideiarekin, aipatu da Udal Aretoaren gainean etxebizitzak daudela, eta hor ere aukeraren bat egon daitekeela. Baina zehaztu nahi izan da bi ideia desberdin atera zirela horren kontura: Bata, kontzertuetara, antzerkia egitera... etortzen diren artistek gaua pasatzeko izatea. Bestea, erresidentzietarako, sormen-prozesuak bertan egin ahal izateko. Hori diru-sarrerara moduan ere planteatu daiteke. Beharren arabera ere, gehiago zehaztuko da aurrerago.
- **San Pedroko jubilatuek** aipatu dute egungo lokalak ez dituela euren beharrak asetzen, eta Proisa leku egokia litzatekeela. Taberna eurek kudeatu lezakete (bertan egoteko, jatekoa eman...), eta horrek, belaunaldien arteko harremana ere erraztu ahal izango luke.

EKIPAMENDUEN EZAUGARRIAK OSATZEA

Aurreko saioan lanak erdizka utzi genituen, eta garrantzitsua da horiek amaitzea edo osatzea. Horretarako, hiru talde egin ditugu (1, 2 eta 3), eta talde bakoitza txoko batean jarri da:

1. Estalpea eta Udalaren laguntza
2. Proisa edo Proisa bezalakoa+ekipamendu txikiak
3. Ekipamendu txikiak+Udalaren beste lokalak.




3. saioa herritarrekin: akta

Helburua izan da Pasai San Pedroko etorkizuneko ekipamenduen ezaugarriak zehaztea eta adostea. Talde bakoitzak berea osatu du, eta taldekide bat bertan geratu da; beste taldekide guztiak, berriz, beste bi txokoetara joan dira, museoetan bezala, eta han beste taldekoen azalpenak entzun dituzte; horrela, besteek egindako lana ezagutu, osatu eta iritzia eman dute.

Azkenik, talde bakoitzak berea aurkeztu du guztien aurrean.

1 TALDEA



Azalpena

Estalpeaz aritu dira, ez dute landu Udalaren laguntzarena (nahiko begi bistakoa da, ez da eztabaidagai).

Estalpea

Leku estali bat behar da, eguraldi txarra egiten duenerako, txikia bada ere, batez ere guraso eta haurrentzat, eta harreman sozialetarako.

Adibideak:

- Lonazko estalpea, tenkatuta
- Egiako estrukturak
- Estalpe mugikorra
- Lezokoa

Erabilera

- Egunerokotasunean librea (kanpoaldean)
- Kulturarekin zerikusia daukaten jarduerak antolatzea leku estali batean
- Kanpoko emanaldiak bermatzeko estalpea (adibidez, jaietarako, bazkari herrikoiak...).
- Aukera batzuk:
 - Salbio plaza estali



3. saioa herritarrekin: akta

- Toldo handi bat Proisako atetik, baina estalpea parkeari, ez Proisari. Kultura kalera ateratzeko
- Kioskoa berreskuratu, Torre edo Torreatzen
- Kutxako zurruna (txikientzat?)


Erabiltzaileak

- Guraso eta haurrak, aitona-amonak....
- Herri osoa orokorrean
- Gazte eta nerabeak

Gestioa

- Librea
- Lekuaren autogestioaren arabera

2 TALDEA



Azalpena

Proisa edo Proisa bezalako leku bat behar da:

- ✓ Libre sortzeko
- ✓ Elkarren arteko harremanak sortzeko eta sendotzeko
- ✓ Jendea elkarlanean jartzeko
- ✓ Zinema egiteko
- ✓ Erakusketak egiteko
- ✓ Haurrentzat aisialdi-ekintzak egiteko
- ✓ Elkarteek bilerak/batzarrak egiteko
- ✓ Kontzertuak egiteko
- ✓ Afariak egiteko



3. saioa herritarrekin: akta

- ✓ Panpinak/karrozak egiteko
- ✓ Emanaldiak
- ✓ Tailer anitzak (arte plastikoak, antzerkia, musika...)
- ✓ Entseguak
- ✓ Hitzaldiak
- ✓ Proiekzioak
- ✓ Bazkariak
- ✓ Bilerak
- ✓ Topaketak
- ✓ ...

Leku horren ezaugarriak edo edukiak:

- ✓ Kokapena: gaur egungo Proisa, frontoi ondoan, herri erdian
- ✓ Leku autogestionatua
- ✓ Balioanitza
- ✓ Leku estalia, irekia, aterik gabea, argia, handia, malgua
- ✓ Erabiltzaileen artean koordinatua
- ✓ Eszenatoki handi batekin
- ✓ Taberna edo barrarekin
- ✓ Biltegi edo kontsigna gauzak gordetzeko
- ✓ Apartamentu txiki bat (lotarako)
- ✓ Sarean beste lokalekin

Hori guztia ondo dago, baina bi galdera sortzen dira: hori guztia **noiz eta nola?**

Erabiltzaileak

- Etorkizunean zehaztuko diren arau eta filosofiarekin bat datorren talde oro

Gestioa

- Parte hartzeko prozesu propioa
- Autogestioa
- Batzar irekia (elkartea), urtean 1 herriari
- Finantziazioa: taberna/barra, emanaldiak, tailerrak...

3 TALDEA





3. saioa herritarrekin: akta

Azalpena

Erabilera

Lokal txikien edo beste udal-lokalen erabileraz hitz egiten hasi aurretik, ezinbestekoa da hau garbi uztea:

- Lokal txiki hauek guztiak “bestearen” erabileraren arabera izan eta erabiliko dira.
- Horretarako: beharrezkoa da jakitea zein den errealitate ekonomikoa eta ideologikoa, zein diren Proisa proiektuari aurre egiteko aukera errealak.

Gaur egun Ertin egiten diren jardueretako asko eta erabiltzaile batzuk Proisara eramatea egokiagoa da, besteak beste:

- Herriko artistak, sormena* Proisara
- Arte-sorkuntza (margoa, eskultura...)* Proisara
- Ondartxo* Proisara
- Zurruna* txiki geratu da* Proisara
- ...

	Erti (udal-aretoa)	Gimnasioa	Alkateordetza	Zaharren egoitza
Erabilera	<ul style="list-style-type: none"> - Arte eszenikoak: dantza-entseguak, antzerki-entseguak, abesbatzaren entseguak... - Chi Kung - Hitzaldiak - Goiko gela txikian ikastaroak - Erakusketak - Kultura Saileko edo Udalak antolatutako ikastaroak (margoa, marrazkia...) - Erabilpen librea aisialdirako, gurasoentzat eta seme-alabentzat - Lamiak - Tip-tal clap - Castelao Taldea - Udaleko antzerki-taldea - Txistulariak - Pelikuletarako bulegoak 	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol-arloko jarduerak (yoga, aerobika, dantza...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeen bulegoak - Dokumentaziorako zentroa - Udal-plenoak 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da egokia zaharren elkartearen jarduerarako
Gestioa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Espazioen erabiltzaileen eta Udalaren arteko gestio bateratua. ✓ Sarean, espazio guztien arteko koordinazio-sarea (Udala handiagoa irudikatuta, baina eragileekin elkarlanean) ✓ Webgunea behar da, baina zaila da ✓ Arbela: egunerokotasunean ofizialki antolatzen duena ere asanbladara etor dadila esatera 			



3. saioa herritarrekin: akta



Ondorenean komentatu direnak:

- Proisa **noiz eta nola** gauzatuko den argitu behar du Udalak. Finantziazio-arazoak egongo direla bistakoa da. Udalak erabakiak hartu behar ditu, eta horiek jakinarazi.
- Proisak izan behar du kulturgintzaren **erdigunea**, eta han egiten edo jartzen denaren arabera, gainerako aretoen erabilera zehaztu beharko da.
- Parte hartzeko prozesu honetatik ondorioztatzen da Proisa edo Proisa bezalako **eraikin bat behar dela**, eta **gainerako aretoak ere bai**. Zer jartzen den edo egiten den Proisan, beste lokal eta ekipamenduak horren arabera moldatuko dira. Beste kontu bat da behin-behinekotasun honetan nola antolatzen diren espazioak.
- Estalpeari dagokionez, frontoia estaltzea aztertu da, baina iritzi kontrajarriak daude.

GESTIOA

Orokorrean, nahikoa iritzi bateratuak zeuden taldeetan egin den lanean:

- Proisa: **autogestioa**. Batzar irekia (elkartea). Urtean behin herriari irekitako batzarra. Bono kulturala. Parte hartzeko prozesu propioa.
- Lokal txikiagoak: espazioen erabiltzaileen eta udalaren arteko **gestio bateratua**. Espazio guztien arteko koordinazio-sarea. Webgune bat. Arbela: egunerokotasunean ofizialki antolatzen duena ere asanbladara etor dadila.



3. saioa herritarrekin: akta

- Espazio irekia: **librea**. Toldoa jartzeko aukera eginez gero, hori ere autogestionatua izan daiteke.

Aurrera begira, **egituraren bat sortu behar da**, koordinazioa bateratzeko.

Ondorenean komentatu direnak:

- Gestio bateratua lokal txikietan bakarrik? Zabaldu egin behar da, eta lokal handian ere bai.
- Autogestionatua izateak ez du esan nahi inor bazterten denik, baina Udala beste bat bezala hartzen da, ez besteen gainetik dagoen zerbait bezala.
- Urteetan Udalaren gestioa ez da ona izan, eta Proisa ezin da utzi Udalaren esku.
- Batzarra da organo demokratiko gorena. Beharrezkoa da kultura irekia, eta ez ego-tea pertsona gutxi batzuen esku gestionatzeko. Udalaren sailetan (Kultura, Euskara, Gazteria...) kudeaketa ez da demokratikoa.
- Udalaren zati batek ordezkatuta egon behar du. Beste kultura-mota bat aldarrikatzen dugu. Ez daukagu dirurik, ezin dugu eman dirurik, baina bestelakoak eman ditzakegu, egiten dugun hori eman herriari. Proisan egin nahi dena egiten bada, lokal batzuk hustu egingo dira, eta horiek erabil daitezke dirua ematen duten beste erabilerara batzuetarako.
- Udala aintzat hartu behar da, eta Proisa eta lokal txikiek lotuta joan behar dute, batera. Proisan parte hartze publikoa egon behar da. Proisa mantendu duen jendeak gestioan parte hartu behar du, baina Udalarekin batera.
- Elkarrekin gestionatzeari ez dio beldurrik izan behar Udalak, pagotxa da. Autogestioan Udalak ere egon behar du.
- Proisa publikoa da, eta kontrol publikoa izan behar du. Ez da ezer ere publikoa kontrol publikorik gabe. Beste gauza bat da, Udalak autogestioan parte hartu behar duen, eta nola.
- Autogestioa berez da positiboa, baina espazio batzuk ez ditugu horrela ikusten. Udalak komunitatearen interesak zaindu behar ditu. Elkarren arteko errespetua behar da, eta gaur egun ez dago. Bi adibide: bi instantzia egin eta batere erantzunik jaso ez Udaletik. Udalean erreleboa behar dugu. Beharrezkoa da beste harreman bat.
- Eskertzen dut informazio hori eman izana, gauzak nola dauden jakiteko.
- Proisa itxiz gero, nola geratzen gara?
- Autogestioa gehiago zehaztu beharko da. Egon behar du espazio bat, non Udalak eta eragileek bat egiten duten, eta hori izango da Pasai San Pedroko kultur gintzarako motorra.

ETORKIZUNERA BEGIRA



3. saioa herritarrekin: akta

- Udaleko batzordeak zabaltzea badago, eta Kulturakoa ere bai, herritarren parte-hartzea handiagoa izateko.
- Bideratzaileok aurreikusten genuen Talde Eragilea sortzea. 40 lagun gehiegi dira. 2 hanka izatea, Udala eta eragileak, eta jende gehiagori zabaltzea, beharrezkoa denean.
- Proisa ikusten dugu erdigunean, eta gainerako ekipamenduak horren baitan edo arabera egongo dira. Proisa edo Proisa bezalako hori gauzatzeko bidean laguntzeko, batzorde edo talde bat eratuko da, udal-ordezkariz eta eragilez osatua.
- Ez nuke galduko gaurkoa, hau mantendu egin behar da, batzar handi hau. Deialdia egiten diot jendeari, honi eusteko.
- Lokal honen erabilera, Proisakoa bideratu bitartean, talde horretan ikusiko da.
- Ondo, baina bitartean? Non egingo dugu festetarako panpina? Non Olentzero? Proisak itxita jarraituko du, baina behar batzuk badauzkagu. Badaude pertsonak egunero entseatzen dutenak han.
- Parte hartzeko prozesuak balio izan du ikusteko Proisa beharrezkoa dela. Baina noiz gauzatuko da? Nik hori jakin nahi nuen, horretara nentorren.
- Talde Eragilearen egitura ikusten da? BAI.
- Baina beharrezkoa da helburuak definitzea, zer helburu izango dituen. Beharrezkoa da hitz egitea nola osatuko den Udalaren eta eragileen arteko sarea. Beharrezkoa da jakitea Proisako proiektua gauzatzeko bidean nola antolatuko diren gauzak.
- Trantsizio bat egin beharko da, eta hori antolatu egin beharko da.
- Beste prozesu bat jarri behar da martxan, erabakitzeko Proisa birgaituko den edo ez.
- Gobernu Taldeak hau guztia jaso egiten du, eta landu egin behar du. Talde Eragilea bidea egiteko da.
- Talde Eragilean aztertu egin behar dira ondorioak, adostasunak... Gero Elhuyar ez da egongo. Bilera zehatz batzuk egin behar ditu, eta partekatu.
- Hitz egin gabe geratu dira gauza batzuk. Geroko hori Proisa edo Proisa bezalako izango den erabaki gabe daukagu. Hori ez da landu behar talde txikitan, denon artean landu behar dugu. Hori argitu egin behar dugu denon artean.
- Udalak badauzka lanak eta epeak. Udalak antolamenduaren barruan sartu behar du, eta epe jakin baten barruan (3 hilabete) eta orduan jakingo dugu Proisa den edo Proisa bezalako den.

Azkenean erabaki dugu **beste bilera zabal bat** egingo dugula Aste Santuaren ondorenean, emaitzak aurkezteko eta aurrera begira jartzeko (Talde Eragilearen osaera...).


BALORAZIOA

Saioa/prozesua baloratzeko, izena idatzi dugu postaletan, eta ondoren jaso; gero, postalak banatu egin ditugu berriz ere eta tokatutakoari idatzi beharra zegoen, saioari/prozesuari buruz nahi zena azaltzeko. Amaieran, postaletako batzuk ozenki irakurri ditugu.



3. saioa herritarrekin: akta

Hona hemen horietako zati adierazgarri batzuk:

- “En la sesión de hoy ha quedado claro que estos 3 días no han sido suficientes y que estamos muy interesados en seguir participando en la definición de cómo vamos a seguir caminando hasta llegar a ver el nuevo Proisa”
- “Gaurko bilera interesgarria iruditu zait. Orain arte atera ez diren gai deserosoak atera dira, baina oso garrantzitsuak direnak. Hemendik aurrera gai orokorretatik gauza zehazagoetara joateko unea iritsiko da, eta hori zaila eta luzea izango da”
-  “Gaur udal-aretoan eduki dugun bileran pauso handiak eman ditugula uste dut. Beste bilera baten beharrea geratu gara, izan ere, denbora astiro joan zaigu eta gose gara. Nire ustean Proisaren inguruan aurrerapauso handiak eman dira eta baita herri-udaletxe arteko harremanean ere.”
- “Zeinen ongi hitz egin dugun, gure interbentzioak gardenak eta dirdiraz beteak izan dira, kristala bezalakoak”
- “Beharrak argi, orain bidea eman behar. Guztion artean behar du izan. Proisa erai-kina mantentzea eta guztiontzat egoki erai-kitzea jende gehienaren nahia da, eta horretan saiatu behar gara”
- “Hiru egun polit pasa ditugu entzierroan. Itxaropena, etsipena lorearen petaloak bailiran etorri zaizkit gogora... Baina baikortasunari eta ekiteko gogoari lotuko natzaio, eta parte hartzeko prozesua ABIAPUNTU INTERESGARRIA dela pentsatuko dut. Gainera, ez eraikinak eta herriak ere ez dira funtsezkoenak, garrantzitsuenak pertsonak baitira, eta horretan HANDIAK GARA!”
- “Claros y oscuros. Muy positivo el interés que la cultura despierta en el distrito. Mejorar el trabajo conjunto o ponerlo en marcha entre el Ayuntamiento y los artífices de la cultura en San Pedro”
- “Parte hartzeko prozesu hau positiboa iruditu zait, udaletxearen eta San Pedroko kultur eragileen artean elkar ulertzen hasteko eta Proisa kultur gunea beharrezko bezala identifikatzeko”
- “El espíritu de Proisa es el que mueve la actividad cultural de San Pedro. La actividad cultural se moverá en asambleas populares que admitirán representación de varios colectivos (artístico-políticos)”
- “Mamitsua, dinamikoa, eraginkorra. Ez gara bidean galdu. Zenbait momentutan, erantzunak eman beharrea, galderak eta zalantzak ireki dira. Bukaera sentazio on batekin. Adostasun-maila ona lortu da”
- “Uste dut oso positiboa izan dela parte hartzeko prozesu hau, hitz egitea beti delako oso positiboa, argi geratu da Proisaren beharra eta espazio horrek sortu dituen sinergiak eta indar-metaketa”



3. saioa herritarrekin: akta

- “Proisa edo Proisa bezalako (leku berean) eraikinaren beharra dago. Behar horri erantzuna emateko parte hartzeko prozesu zehatz bat behar da. Irekia. Parte hartzeko prozesu horri hasiera eman”
- “Lo importante de este proceso es que hemos llegado a ‘valorar’ la cultura de San Pedro, lo importante que es para el pueblo, la participación, lo necesario que es y más importante aún que lo queremos aquí, para todos, de todos y en Proisa o algo parecido a él ahí”
- “Ba, hiru egun eta gero ondorio garrantzitsuetara iritsi gara. Espero dut guztion borondatearekin gauzatzea eta egia bihurtzea. Baina ez ahaztu KULTURA pertsonak egiten dutela, ez espazioek”
- “Abiapuntu bezala ez dago gaizki. Baina oraindik lan ugari egin beharko diagu hau aurrera atera eta atzetik datozenei kultura pixka bat uzteko”
- “Prozesua ondo egon da, baina hau hasiera besterik ez da, lan asko daukagu aurretik, ideia on hauek gauzatzeko. Denon artean, egiazko borondatea izanez gero, gauzatu ditzakegu”
- “Gaur bukatzeaz zegoen prozesua luzatu behar izan dugu, nire ustez benetako gakora ailegatu ez garelako. Jendearekin oso gustura egon naiz. Hasieran nituen zalantzak berdin jarraitzen dutenez, ezin dezaket gustura geratu naizenik esan”
- “Parte hartzeko prozesua ilusio handiz hasi genuen eta 3 saio hauetan lan handia egin dugu. Baina aurretik bidea geratzen dela argi geratu da gaur. Orain, guztion esku geratzen da bide hori eraikitzea eta jarraitzea. Espero dut bide horren amaieran PROISA BEZALAKO kultura bultzatzaile bat topatzea”
- “Banekien gaurko saioa zailena izango zela. Prozesua planteatuta zegoen bezala, gaur baitzen erabakiak eta konpromisoak hartzeko saioa. Eta utzi didan zaporea gazi-goza izan da: alde batetik, Proisa mantentzearen beharra atera da, eta, bestetik, gauza asko gelditu dira mahai gainean jarri gabe. Ea egingo dugun azken saio horretan sententzia positiboagoa lortzen dugun!”
- “La valoración es positiva, creo que los diferentes pensamientos y posturas se van acercando y que eso dará como resultado un proyecto común. Espero que ese proyecto responda a las necesidades que se plantean”
- “Gaur berez prozesua amaitu behar genuen, baina beste bilera bat egitekotan geratu gara eta argi dagoena da benetako lana orain hasiko dela. Hori bai, adostasunez izugarrizko oinarria lortu dugu, beharrak identifikatu ditugu eta, garrantzitsuena, helburu argiak markatu ditugu, denon artean elkarlanean ziur lortuko ditugunak, eutsi diezaiogun argi honi piztuta beti!”
- “Gaur gustura aritu naiz, giroa ere balekoa izan dela esango nuke eta eztabaida dezentente eman bada ere, uste dut aberasgarria dela zintzilik geratzen diren kezkek argitzeko. Primeran, beraz!”
- “Valoro positivamente el día de hoy, creo que por fin se ha podido encauzar el ‘problema’ que nos ha llevado hasta aquí. Ahora solo queda rematarlo para nuestros intereses”